

PANDEMIAREN EGOERA ETA ONDORIOAK
(2021eko ekaina)
Prensa oharra

SARRERA

Azterlan honen gaia izan da Euskadiko biztanleek Covid-19aren pandemiari eta haren ondorioei buruz dituzten pertzepzio eta jarrerak. Landa-lana 2021eko ekainaren 15etik 18ra egin zen.

KEZKA

Kezka osasunagatik eta ekonomiagatik

EAEko biztanleen % 19 oso kezkatuta daude, eta % 48 nahikoa kezkatuta, koronabirusaren hedapenarekin. % 25 ez daude oso kezkatuta, eta % 8 ez daude batere kezkatuta.

Kezkarik handiena sortzen duena da hurbileko pertsonaren bat Covid-19az gaixotu daitekeela (% 50 oso kezkatuta eta % 31 nahikoa kezkatuta) eta pandemiak Euskadirentzat izan ditzakeen ondorio ekonomikoak (% 42 eta % 47). Kezka gutxiago sortzen dute familia-ekonomiarako ondorioek (% 35 eta % 34), seme-alaben eskolatzean izan ditzakeen ondorioek (% 32 eta % 33), norbera gaixotu ahal izateak (% 31 eta % 30) eta osasun mentalean edo emozionalean izan ditzakeen ondorioek (% 28 eta % 33).

Kezka handiagoa osasunaren gaineko ondorioek ala ekonomia eta enpleguaren gainekoek sortzen duten galdetuta, EAEko biztanleek osasunaren alde egiten dute gehien (% 43) eta, bigarrenik, ekonomiaren alde (% 35). % 20k adierazi dute biek berdin kezkatzen dituztela, erantzuteko aukera hori berariaz eskaintzen ez zen arren.

Herritarrek 6,9 punturekin kalifikatzen dute beren egoera emozionala, 0tik 10era bitarteko eskalan.

Biztanleen % 18k uste dute aukera asko edo dezente dituztela koronabirusaz kutsatzeko, % 65ek uste dute aukera gutxi dituztela eta %14k ez dutela batere aukerarik.

Gainera, gaixotzen badira, % 35ek uste dute oso edo nahiko larria izango litzatekeela beren osasunerako, % 40k ez oso larria eta % 7k batere larria ez.

COVIDAREN AURREKO JARDUERAREN BALORAZIOA

Osakidetzaren eta osasun profesionalen balorazio oso ona

Herritarrek 10etik 7,9 punturekin balioesten dute Osakidetza Covid-19a duten gaixoei ematen ari zaien arreta.

Gainera, 6,1 puntuko nota jarri diote Euskadiko osasun-agintariek herritarrei ematen dizkieten informazio eta gomendioen argitasunari.

Krisi honetan Eusko Jaurlaritzak izandako jarduerak 6,2ko puntuazioa lortu du herritarren aldetik; Espainiako Gobernuak 5,1 puntu, eta Europar Batasunak 5,4 puntu.

Bestalde, herritarrek 8,8ko puntuazioa eman diote osasun-arloko profesionalei, eta 7,6koa zientzialariei. Biztanleriak puntuazio baxuagoa eman die herritarrei (5,9) eta hedabideei (5,2).

ONDORIO EKONOMIKOAK

Ondorio ekonomiko larriak hautematen dira

EAEko biztanleen % 62k diote pandemiak ondorio ekonomiko larriak dituela beraiarentzat, eta % 92k Euskadirentzat.

Ekonomia suspertzeko itxaropenei dagokienez, herritarren % 48k uste dute euskal ekonomia 2023an edo geroago suspertuko dela, eta % 32k 2022an suspertuko dela.

PREBENTZIO NEURRIAK

Zuhurtzia musukoaren derrigortasuna kentzeari buruz

Herritar gehienek (% 88k) diote ez dutela aldatu prebentzio-arau eta -gomendioekiko jokabidea, maiatzaren 9an Alarma Egoera amaitu ondoren. % 6k diote lehen baino zorrotzago betetzen dituztela, eta beste horrenbestek, berriz, zorrotzasun gutxiagoz.

Aire zabalean musukoa erabiltzeko derrigortasuna desagertzeari dagokionez, euskal herritarren % 47k adierazi dute hobe litzatekeela gutxienez hilabete batzuetan derrigorrezkoa izaten jarraitzea, % 38k uste dute jende guztiari utzi beharko litzaikeela aire zabalean ez erabiltzen, eta % 10ek txertoa jarrita dutenei bakarrik utzi beharko litzaikeela.

TXERTAKETA

Txertaketaren kudeaketaren balorazio ona

Herritarren % 64k uste dute txertoen eraginkortasunari eta segurtasunari buruz ematen ari den informazioa oso edo nahiko fidagarria dela, eta % 31k ez dela oso fidagarria edo batere fidagarria.

Ekainaren 15a eta 18a bitartean egindako ikerketa honetan, 18 urtetik gorako biztanleen % 42k adierazi dute txerto osoa jarrita dutela, % 23k lehen dosia dutela eta bigarrenaren zain daudela, eta % 28k bere txanda noiz iritsiko zain daudela. Herritarren % 3k soilik adierazi dute ez dutela txertorik hartuko, eta % 4k oraindik ez dute erabaki txertoa jarriko duten ala ez.

Txertoa osorik hartu duten edo lehen dosia jaso duten pertsonak ez dirudi asko aldatu dutenik beren portaera; hala, gehienek diote ez dutela batere aldatu mugikortasuna (% 70), haiekin biltzen diren pertsonen kopurua (% 74), taberna edo jatetxeetara joateko maiztasuna (% 73) eta maskararen erabilera (% 84). Hala ere, % 34k esan dute bere egoera emozionala asko edo dezente hobetu dela txertoa hartu ondoren.

Gutxienez txertoaren dosi bat daukatenean, 10etik 8,7ko puntuazioarekin baloratu dute beren txertaketa-prozesu pertsonala, hau da, hitzordua lortzea, puntualtasuna, txertaketa-lekuaren antolaketa, etab.

Euskadiko txertaketaren kudeaketaren balorazioa ere oso ona da: herritarrek 10etik 7,3 puntu eman dizkiote.

Nerabeen eta haurren txertaketari dagokionez, 12 eta 17 urte bitarteko seme-alabak dituztenei galdetu zaie, batetik, eta 12 urtetik beherakoei, bestetik. 12 eta 17 urte bitarteko seme-alabak dituztenen artean, % 68k txertoa jartzea nahiko lukete, baina % 23 ez daude seguru, eta % 7k nahiago lukete seme-alabei txertorik ez jartzea. 12 urtetik beherako seme-alabak dituztenen artean, % 45ek nahiago dute txertoa jartzea, % 18k ez jartzea eta % 36 ez daude seguru.

PANDEMIAREN ONDOKO GIZARTEA

Normaltasunera itzultzeko denbora beharko da

Euskal gizartearen gehiengoak uste du oraindik ere pandemiaren aurretik bezala bizitzeko denbora beharko dugula. %41ek uste dute 2022an izango dela, eta % 27k 2023an edo geroago. Soilik % 13k uste dute aurten izango dela, eta % 8k uste dute inoiz ez garela berriro lehen bezala biziko.

Iritziak nahikoa zatituta daude pandemiak gure ohituretako hainbat alderditan eragingo dituen aldaketan inguruan. Jendearen % 63k uste du asko edo dezente aldatuko dela lan egiteko modua, % 59k besteekin harremanak izateko modua, % 57k familia eta lana bateragarri egitea, % 57k bidaiak, eta, azkenik, % 39k uste du asko edo dezente aldatuko duela ingurumenarekiko dugun errespetua.

Ikerketa honen **fitxa teknikoa** zabaldu den txostenean kontsulta daiteke. Lagina 18 urtez gorako herritarrei zuzendua, EAE osorako 1.000 lagunek osatua da. Elkarrizketak telefonoz egin dira. Lagin honi dagokion agin errorearen estimazioa $\pm\% 3,16$ koa da EAE osorako, % 95,5eko konfiantza mailarako, $p=q=0,5$ izanik. Informazio bilketa 2021eko ekainaren 15a eta 18a bitartean egin zen.

OHARRA: Txosten osoa Prospekzio Soziologikoen Kabinetearen webgunean eskuragarri dago:

http://www.euskadi.eus/ikerketa_soziologikoak

Vitoria-Gasteiz, 2021eko ekainaren 25a